

Arabako Mendiak Aske mugimenduko kide bat epaituko dute mozal legea aplikatuta

INDEPENDIENTEA :: 27/10/2024

Urriaren 29an kolektiboko kidea epaituko dute Gasteizen eta mugimenduak adierazi duenez lurraldearen defentsarako borroka ahultzea bilatzen du muntaia polizial honek.

2021eko uztailaren 2an, Arabako Mendiak Askeko talde bat Iturrietako Mendietan antolatutako lehen mendi martxa egin behar zen gunean zegoenean, bi ertzainek talde horretako kide bat identifikatu zuten. 2022ko otsailaren amaieran, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren jakinarazpen bat iritsi zitzaion kide horri, Mozal Legearen 35.6 artikulua hausteagatik zehapen-espeditente bat ireki ziotela jakinarazten ziona. Ertzaintzaren agenteek alegatu zuten taldeko kide horri identifikatzeko eskatu ziotela, baina hark ez ziela jaramonik egin eta alde egin zuela, bere nortasun-agiriko daturik eman gabe.

Arabako Mendiak Askek polizia-muntaiatzat jotzen du gehiegikeria hori, eta zenbait administrazio-errekurtso jarri ditu. Urriaren 29an kolektiboko kidea epaituko dute, Gasteizen.

Elkartasuna eta beharrezko babesa eskatzen ditugu bidegabekeria eta zapalketa hori salatzeke, lurraldearen defentsarako borroka ahultzea bilatzen baitu, delituzko oinarririk gabeko isunak pertsonalizatuz. Polizia-muntaia horiek salatzen ditugu, eta bizitzara lotzen gaituzten naturaguneak eta landa-eremuak defendatzeko borrokan jarraitzearen alde egiten dugu.

Lurraren defentsa eta lurraldearen defentsa ez dira delituak.

Mozal legea baliogabetzeko eskatzen dugu.

Muntaia polizialak salatzen ditugu!

Urriaren 29an, 9:30ean, Gasteizko epaitegietan emango dugun prentsaurrekora joateko dei egiten dizuegu.

Mozal legeari ez!

Muntaia polizialei stop!

<https://eh.lahaine.org/arabako-mendiak-aske-mugimenduko-kide>